


BAZTAN Balleko Udala





*Baztan eta Urdazubiko
Santiago Bidearen
Lagun Elkarte*

Santiago Bidea



*BAIONA – BAZTAN – IRUÑA
GR65-2*





Igo etapa. BAIONA-UZTARITZE

Ezaugarriak: 15m-ko desnibela /14 km-ko tartea /Iraupena: 3 ordu. Kale arteko tartea eta asfalto aunitz. Baionako katedraletik Uztaritzera ino eramaten gaitu etapa honek, Aturri eta Errobi erreken bazterretik. Ez dago jada desnibelik; hiritik lapurtar landara sartzen da, jende tartetik nekazal mundura, hain zuzen ere.

Puntu interesgarriak: Baionako ondare guztiaz aparté, Uztaritze bera ere lapurtar herrien adibide eder bat da.

Oharra: Santiagobideko lehendabiziko senalea 40 minutuz ibili ondoren aurkituko dugu

2. etapa. UZTARITZE - AINHOA- URDAZUBI

Ezaugarriak: 290m-ko desnibela / 21.5 km-ko tartea /Iraupena: 4.45 ordu. Asfaltoa eta lur-pistak.

Lapurtar lurretan murgiltzen gara, malda tikiak igo eta jeitsiz, errekek gurutzatuz, belai eta basoetatik pasatuz, batez ere hariztiak, sahatsak, zumarrak eta astigarrek ikusiz.

Puntu interesgarriak: Ainhoa herria, kale bakarrekoea,

Axularren sort-etxea, XVII. Mendeko literatur euskaldunaren pertsonai interesgarria, Urdazubiko Salbatore monastegia. Genaro Iruin eskultoreak bere etxearen ingurua museo batean bihurtu du.

Oharra: Dantxarineraino señaiek jarraitzeko zailtasun zenbait aurki dezakegu.

3. etapa. URDAZUBI- OTSONDO- AMAIUR

Ezaugarriak: 488m-ko desnibela / 9 km-ko tartea /Iraupena: 3 ordu.

500 m-ko desnibeladun

mendate bat izanik aitzinaldean, ez sobera haundia baina bai garrantzizkoa, komenigarria da etapa motza egitea horrelako desnibeletera ohitzen joateko, beraz, Urdazubi eta bere ingurunean bixita zenbait egiteko aprobeitza daiteke denbora.

Puntu interesgarriak: Urdazubiko Salbatore monastegia aipatzekoa da, Ikaburuko kobazuloa, gidadun bixitekin, edo bertako errota. Amaiurko herrian, kale bakarrekoe estruktura izateaz gain, monolitoa ikusiz Gazteluaren kokapena jakin dezakegu, 1522. Urtean bota zutena, Nafarroaren independentziaren gaitzearen sinboloa. Elizan organo erromaniko interesgarri bat aurki dezakegu.

4. etapa. AMAIUR- ELIZONDO- BERROETA

Ezaugarriak: 224m-ko desnibela /19.5 km-ko tartea /Iraupena: 4.30 ordu.

Baztan Harana zeharkatzen da etapa honetan, Haran eder hau lasaiki ikusteko aukera izanen dena. Zailtasun guttiko etapa da, edozein modutako puntu interesgarriak ikus daitekeena: natura, paisaiak, etnografia... oraindik tradizioak altxaten dituen hem batetaz ari bait gara.

Puntu interesgarriak: Bideak zeharkatzen dituen herri guztiek beren edertasuna gordetzen dute, baita beraien zutarriak ere: monastegiak, jauregiak, baserriak, museo tikiak... guztiak ederrak.

Oharra: Amaiur eta Arizkun tartean,

Azpilketatik markatuta dagoen bidexka bat dago, Urrasun auzotik barna.

5º etapa. BERROETA- BELATE- LANTZ

Ezaugarriak: 628m-ko desnibela /15 km-ko tartea / Iraupena: 4.30 ordu.

Belateko bortua pasatzea da etaparik gogorrena, baino pago artean igotzeak errezen du igoera. Bide zati bat erromatar gaitzada da.

Puntu interesgarriak: San Blas benta, igoeraren erdian dagoena, hortxe izan ziren kokatuak baseliza eta beilari aterpea bat.

Bortua gailendu ondoren, Belateko monastegi- ospitala berriua aurkituko dugu. Lantz, karrika- herria, aipagarria da ere bai.

6. etapa. LANTZ-IRUNA

Ezaugarriak: 210m-ko desnibela /27 km-ko tartea / Iraupena: 8.15 ordu. Arretik goiti, kaletartea

Bide zati hau guztiz prestatzea ez dago akituta eta bide orijinala egiteko zailtasunaren bat izan daiteke, tarteka errepidea hartu beharko delarik. Desnibel gutti, eta tartearen luzetasunak bidea lasaitasunarekin hartzera behartzen du.

Puntu interesgarriak: Irunan aurki daitezkeen gauza guztietaz gain, Arre herria aipagarrienetako bat dugu, (zubia, baseliza-aterpea). Anue Haraneko herrietan, Oiaibar eta Ezkabarten ere ikus ditzakegu gauza interesgarriak.




SANTIAGO ETA BIDEA. NAFARROA

Erraten dute Santiago Carlomagnoaren ametsetan agertu zela bere hilobia non zegoen erranez. Delako Santiagoren hilobia IX. Mendearen hasmentan agertu zen. Compostelara eraman ziren bere erretoak, ordurarte ez bait zen inoiz han egona.

Erdi-aroan Galicia Fines Terrae zen, mundua akitzen zen punttua. Azpitik sarrasinen ez lealak gelditzen ziren. Asturiaseko erreinuak ideologikoki indartzea behar zuen, ekonomia baxuak merkatal bultzada bat behar zuen, eta zutabe sendo baten beharra bazegoen ... argudio erlijioso, politiko eta sozioekonomiko zenbait batu ziren kristau erromesen bidea sortzeko.

Nafarroan bide zenbait bazen erromatarren kaltzada zaharrak jarraitzen zutenak: Somport-Zangoza; Baztan-Belate, Sakana, Zuberoa- Erronkari/ Izura- Orreaga ...

XII. mendean, Santxo 'Sendoa'-k bide bakar bat indartzea erabaki zuen puntu sozioekonomikoak potentziatzeko, mementu horretan foru bereziak zituzten hirixkak sortu zirelarik atzerrialdeko kapitalen inbertsioak erakartzeko. Horrela sortu ziren frankoen zenbait burgu, garrantzizko juduar ataletan. Bide hau 'Frantsesa' izenekoa, Izuran eLkartzen zen garrantzizko bertze bideskeekin, gero Ibañeta, Iruña eta Lizarratik ere pasatzen zen, Viana-ra iritsi arte. Garesen Aragoiko bidea elkartzen zen.



BAZTAN ETA SANTIAGO BIDEA

Baztan bere izen bereko erreken inguruan biltzen da, baita Iruña eta Baionako bidean ere. Belate eta Baztanetik pasatzen zen bidea Nafarroarendako mende aunitzetan garrantzi haundikoa izan zen, Baiona, Pasaiarekin batera, itsasorako irteera garrantzitsuenetakoa izan baitzen. Nekazal eta merkatal bideak erromesen bideak izan ziren. 60-ko hamarkadan, Santiagorako erromeriaren bizitasuna Frantsesa izeneko bidean murgildu zen, Izuratik hasita Orreagatik pasatzen zena, bigarren mailako bideak atzenduz, ez horregatik historia gabekoak.

<P> Bide bazterretako ostatu eta ezarleku erlijiosoak hauexek ziren: Uztaritze, Zuraide, Urdazubi, Urrasun,

Arizkungo San Blas, Elizondo, Aniz, Almandozko San Blas, Belate edo Arre. Hauek guztiak erromeriaren tradizioa eta ibiltariaren harrerari buruz mintzatzen dira.


Baztango erromesen bidearen errekonstruzioa sendotzen ari da egunetik egunera. Señalizazioa hobetzen ari da, aterpeak berritzen ari dira, ... oportunitate interesgarri bat dugu haxe gure bideak eta gure lurra ezagutzeko, nekazal mundua oinez, gasoil usainik gabeko presarik gabe, kristalik gabeko ikuspegi garbia.

100 km.-ko distantzia dago bi hiri eder hauen artean, historiaren arabera harreman estuak izan dituztenak beraien artean, bai sozioekonomikoak bai kultura aldekoak, herri bera hain zuzen ere.

BIDE ZERBITZUAK

	albergue-auberge aterpea	camping kanpina	hotel casa rural hotela-landa etxea hotel - gite rural	bar restaurante taberna-jatetxea	comercio-magasin denda	cajero automático kutzazain autom. distributeur autom.	farmacia botika pharmacie	centro médico osasun zentrua centre de secours	gasolinera gasolindegia essence
BAIONA / BAYONNE	X	X	X	X	X	X	X	X	X
Milefranga / Villefranque			X	X					
Uztaritze / Ustaritz			X	X	X	X	X	X	X
Zuraide / Souraïde		X	X	X					
Ainhoa			X	X	X				
Dantxarinea (Urdazubi)				X	X	X	X		X
Urdazubi / Urdax	X		X	X	X				
Amair / Maya	X		X	X					
Azpilikueta**									
San Blas (Arizkun)				X					
Erratzu**		X	X	X	X				
Bozate (Arizkun)									
Arizkun			X	X	X		X		
Elbete				X					
Elizondo			X	X	X	X	X	X	X
Gartzain**			X	X	X				
Lekarotz**	X			X	X	X		X	X
Irurita			X	X	X				

	albergue-auberge aterpea	camping kanpina	hotel casa rural hotela-landa etxea hotel - gite rural	bar restaurante taberna-jatetxea	comercio-magasin denda	cajero automático kutzazain autom. distributeur autom.	farmacia botika pharmacie	centro médico osasun zentrua centre de secours	gasolinera gasolindegia essence
Arraiotz**			X	X	X			X	X
Oronoz Mugairi**			X	X	X	X	X		
Zigaurre- (Ziga)									
Ziga			X	X	X				
Aniz			X						
Berroeta			X						
Almandoz			X	X	X				
S. Blas – (Almandoz)			X	X	X				
Benta- (Arraitz)**			X	X					
Lantz			X						
Olague									
Ostiz									
Olabe**			X						
Olaiz									
Sorauren		X	X	X					X
Arre	X			X	X	X	X		X
Atarrabia / Villava			X	X	X	X	X	X	X
Burlata/ Burlada			X	X	X	X	X	X	X
IRUÑA / PAMPLONA	X		X	X	X	X	X	X	X



Argibideak Turismo bulegoak

Baiona/Bayonne. 05 59 23 37 10. Email: info@bayonne-tourisme.com

Uztaritze/Ustaritz. 05 59 932 081. Email: ustaritztourisme@aol.com

Elizondo. 948 581 279. (En saison)

Bertiz. (Oieregi). 948 592 386 Email: oit.bertiz@cmavarra.es

Iruna/Pamplona. 948 206 540 Email: oit.pamplona@cfnavarra.es

BERTIZ. Turismo Patzuergoa 948 592 323 Fax: 948 592 275

Email: consorciobertiz@cin.es

Web: www.pirineonavarro.org

HIRUAK BAT Landa etxe Elkarte 948 387 061

Email: info@bztan-bidasoa.com / www.bztan-bidasoa.com

Aterpeak :

URDAX 948 xxx xxx

AMAIUR/MAYA 948 453 289

LEKAROTZ. 948 581 804

Baztango bidea interneten

www.rutasnavarra.com

ARGITARATZAILEA

Baztan eta Urdazubiko Santiago Bidearen Lagun Elkarte.

LAGUNTZAILEA

BAZTAN Balleko Udala

LAGUNTZA

Urkulu Elkarte, (www.rutasnavarra.com)

Ibilbide egileak

Javier Rey, (Txema Iriarte), (www.rutasnavarra.com). AACS en Baztan y Urdax

Disenua, testuak, maketazioa

José Etxegoien Juanarena

Euskara: Itziar Aleman

urtea 2004



BAZTAN
Balleko Udala
Ayuntamiento
del valle de
BAZTAN



Urdazubi eta
Baztango SBL
Elkarte

AACS en
Baztan y Urdax



Asociacion
URKULU
Elkarte



www.rutasnavarra.com